



Kaixo:

Ongi Etorri Errefuxiatuak plataforma, **Ongi Etorri Gernika 2017** ekitaldia antolatzen ari gara. 2017ko apirilaren 29an eta 30ean, Euskal Herriko, Espainiako estatuko eta beste herrialde batzuetako milaka lagun bilduko gara bertan. Gernikako bonbardaketaren 80. urtemuga honetan, mobilizazio jendetsurako deia egiten dizuegu, "gerrarik ez" oihukatzeko eta migratzaile eta errefuxiatuei ongi etorriak direla esateko.

Apirilaren 29an, oinez, autobusez edo trenez gain, **bizikletaz ere heldu nahi dugu Gernikara**. Dokumentu honetan duzue ibilbide haen gaineko informazioa eta Ongi Etorri Gernika 2017 ekimenaren web orrian, eskuragarri dago programa:

<https://ongietorrierrefuxiatuak.info/gernika2017>

Garrantzitsua da inskripzio orria betetzea. Informazio hori guztia beharrezkoa da topaketa hau ahalik eta hobekien kudeatzeko: bertaratuen gutxi gorabeharako kopurua, noiz eta non agertzekoak diren, bazkaltzeko eta lo egiteko lekuak (hainbat ikastolak instalazioak utziko dizkigute, baina lo zakua eta estera behar dira), bizikletak gordetzeko tokia (Astran, ziur asko), tailerren antolaketa,...

BESTALDETIK, GUZTION ARTEAN HAINBAT BOLUNTARIO BEHARKO DITUGU IBILBIDEEN ANTOLAKETA ZEIN ZIURTASUNA BERMATZEN LAGUNTZEKO. JAKINAREN GAINEN IZANGO ZAITUZTEGU.

Apirilak 28, ostirala

Batzuentzat, agian erosoagoa izango da Bilbora hurbiltzea ostiralean. Horrela bada, izango duzue lo egiteko lekurik "Karmela" izeneko espazio autogestionatuan (Fika kalea, 44), Santutxu auzoan (<http://karmela.eus/>). Lo zakua eta estera baino ez duzu behar. Web orrian emango ditugu zehaztasunak: bizikletak eta ekipaje uzteko aukera, ordutegiak,...

Karmelaren edukiera dela eta, funtsezkoa da jakitea zenbat lagunek lo egingo duzuen bertan. Horretarako, mesedez, behar-beharrezkoa da dagokion laukitxoan markatzea Ongi Etorri Gernika 2017 ekimenaren inskripzio orrian.

19:30ean, Biziz Biziren eskutik, Xabi Lunak berak "Pedaleando por los refugiados" ikus-entzunezkoa aurkeztuko digu (<http://pedaleandoporlosrefugiados.es/>). La Bolsa Udaltzean izango da (Pilota kalea, 10), Zazpi Kaleetan. Larunbatean, gurekin joango da Xabi bizikletaz, Gernikara.

Apirilak 29, larunbata

Hiru "ibilbide ofizial" proposatu ditugu (**urdina, gorria eta berdea**), baina Euskal Herriaren edo estatuaren beste lekuetatik ere espero zaituztegu. Beraz, zutaberen bat antolatzeko aukera ikusten baduzue edozein bilgunetara ailegatzeko, bikain, baina zuen ardura izango da antolaketa zein kudeaketa. Era berean, informazio hori guri helaraztea eskertuko dizuegu. Horretarako, helbide elektroniko honi idatzi:

zutabeakgernika2017@gmail.com

HELMUGA: GERNIKA

AZKENEKO KILOMETROA, ISILIK

EGIN NAHI DUGU



Ibilbide Urdina

BILBOKOA IZAN EZIK, BESTE GUNEETAKO ORDUTEGIAK MARTXAN HASTEKOAK DIRA. MUXIKARAINO 35 KILOMETRO ESKAS EGITEKO TARTEA BADUGU ERE, HOBE DA LASAI IBILTZEA.

LAGUNTZA KOTXEA ERAMANGO DUGU, BIDEAN SOR DAITEKEEN EGOERA PUNTUALEN BAT AURRE EGIN AHAL IZATEKO

1 Gunea: BILBO (09:30)

Arriagako plazan bilduko gara eta 10:00etan, **Mesedeetako zubia** zeharkatuta, **Marzana eta Urazurrutia** kaleetatik, **Abusura** iritsiko gara. **Zamakola** kalea hartuta, Abusu auzoa zeharkatuko dugu, **Ponton bidetik** ailegatzeko **Boluetara**. Bertatik, **Kareaga Goikoa** kaletik, **2 Gunera** heltzeko: **BASAURI**.

2 Gunea: BASAURIko Arizgoiti plaza (11:00)

Plazatik, Kale Nagusitik jaitsiko gara **Lehendakari Agirre** kalerantz. Ondoren, **Urbi, Gudarien hiribidea, Txomin Egileor** eta **Zuhatzu** kaleak hartutak, **3 Gunera** irisiko gara: **GALDAKAO**.

3 Gunea: GALDAKAOko udaletxea (11:30)

Juan Bautista Uriarte kaleak eramango gaitu **udaletxera**. Galdakao izan daiteke oso leku aproposa Arratia, Durango (trena hartuta Zuhatsu-Galdakao geltokiraino) edota Gasteiztik etorritako txirrindulariekin bat egiteko.

Lehengo suhiltzaile-etxetik, **N-634** aterako gara. Trafikoa dago zati horretan, baina laburra da, oso (kilometro bat baino gutxiago), txirrindulari ugari izango gara orduan eta multzoak segurtasuna eta babesa ematen du.

Erletxeseko errotonda atzean utzita, **N-637** errepidearen bide bazterrak emango digun lasaitasunarekin, **BI-2713** jarraituko dugu **4 Guneraino: LARRABETZU**.

4 Gunea: LARRABETZU (12:30)

Bertako eta gertuko lagunekin bilduta, Larrabetzutik, BI-2713 utzi barik, **Morga gaina** igo behar **5 Gunera** heltzeko: **BI-2121 eta BI-2713 ARTEKO BIDEGURUTZEA**.

5 Gunea: BI-2121 eta BI-2713 ARTEKO BIDEGURUTZEA (14:30)

Bertan bat egingo dugu Mungiatik datozenekin. Jaitsiko gara goxo-goxo **6 Gunera: MUXIKA**.

6 Gunea: MUXIKA (16:00)

Gernikara ailegatu aurretik, gune garrantzitsuena, han elkartuko baikara oinez zein bizikletaz hurbildu garen guztiok. Udalak hainbat gune eta zerbitzu prestatuko ditu, Gernikara abiatzeko ordua ailegatzen den bitartean.

BILGUNE INPORTANTEENA MUXIKA IZANGO DA, GERNIKATIK HIRU KILOMETROTARA. 16:00ETAN ZUTABE GUZTIAK BATERA ABIATUKO GARA BERTATIK GERNIKARANTZ

Ibilbide Gorria

AREETAKOA IZAN EZIK, BESTE GUNEETAKO ORDUTEGIAK MARTXAN HASTEKOAK DIRA. MUXIKARAINO 47 KILOMETRO ESKAS EGITEKO TARTEA BADUGU ERE, HOBE DA LASAI IBILTZEA.

1R Gunea: BIZKAIA ZUBIA (AREETA) (09:30)

Bilgunea itsasadar bi ertzeetatik hurbilduko zaretenontzat. **10:00etan abiatuko gara**. Itsasadarreko errepidea hartuta (**BI-711**) ailegatuko gara **2R Gunera: Astrabudua - Erandio**.

2R Gunea: ASTRABUDUA (metro geltokjiaren aparkalekua) (10:15)

Errepidea utziko dugu, Astrabudua edota Erandioko lagunekin bat egiteko. BI-711ra itzulita, Rontegiko zubi azpian, **BI-735** errepideak **Asuara** eramango gaitu. Bertan, **BI-737** jarraituz, utziko dugu atzean **Sondika**, hurrengo bilgunerano: **3R Gunea: Derio**.

3R Gunea: DERIOko udaletxea (11:15)

Hemendik, **BI-3715** hartuta, **Artebakarratik**, **4R GUNEraino: MUNGIA**.

4R Gunea: MUNGIAko udaletxea (12:30)

Martxan, zutabe berdea eta gorria bat eginda, utziko dugu atzean Mungia BI-2121 errepidetik, **5R Gunera** heltzeko: **FRUIZ**.

5R Gunea: FRUIZ (13:30)

Geralditxo bat han zain dauzkagunak biltzeko eta maldan gora orain, baina xuabe-xuabe, **Morga gainera** helzeko (kontsolamendurako baino ez bada, Larrabetzutik gogorragoa da). Ibilbidearen leku inportantea da hau: **6 GUNEA: BI-2121 eta BI-2713 ARTEKO BIDEGURUTZEA**.

5 Gunea: BI-2121 eta BI-2713 ARTEKO BIDEGURUTZEA (14:30)

Bertan bat egingo dugu Mungiatik datozenekin. Suabe-suabe, jaitsiko gara **6 Gunera: MUXIKA**.

6 Gunea: MUXIKA (16:00)

Gernikara ailegatu aurretik, gune garrantzitsuena, han elkartuko baikara oinez zein bizikletaz hurbildu garen guztiok. Udalak hainbat gune eta zerbitzu prestatuko ditu, Gernikara abiatzeko ordua ailegatzen den bitartean.

**BILGUNE INPORTANTEENA MUXIKA IZANGO DA, GERNIKATIK HIRU
KILOMETROTARA. 16:00ETAN ZUTABE GUZTIAK BATERA ABIATUKO GARA
BERTATIK GERNIKARANTZ**

Ibilbide Berdea

FADURAKOA IZAN EZIK, BESTE GUNEETAKO ORDUTEGIAK MARTXAN HASTEKOAK DIRA. MUXIKARAINO 40 KILOMETRO ESKAS EGITEKO TARTEA BADUGU ERE, HOBE DA LASAI IBILTZEA.

1V Gunea: FADURA kiroldegiko aparkalekua (GETXO) (09:30)

Zutabe honen abiapuntua. **10:00etan aterako gara, Sasildu etorbidetik, ziztu batean heltzeko 2V Gunea: BERANGO**

2V Gunea: BERANGOko udaletxea (10:30)

BI-634 errepide hartuta tarte txiki batez, **Akilino Arriola kaletik**, berehala ailegatuko gara hurrengo puntura, **3V Gunea: SOPELA.**

3V Gunea: SOPELAKo udaletxea (10:45)

Sabino Arana eta Aita Gotzon kaleetatik, ibilbide erraza **4V Guneraino: URDULIZ.**

4V Gunea: URDULIZeko udaletxea (11:15)

Atzean utziko dugu Urduliz **BI-634** errepidetik, **Butroi** gero, berriro ere batzeko lagun berriekin **5V Gunean: GATIKA.**

5V Gunea: GATIKAko udaletxea (12:00)

Azkeneko tarte, laburra, **4R Gune: Mungia**era eramango gaituena. Inportantea da lekua, Areetatik ailegatutakoekin zein Mungiatik bertatik abiatuko direnekin bilduko gara eta.

4R Gunea: MUNGIAKo udaletxea (12:30)

Ibilbide Gorriarekin bilgunea.

OHAR BATZUK

KASKOA ERAMAN BEHAR DA eta gomendagarria da ere kolore biziko arropa janzte. Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformaren zapiek eta ikurrek gure buruak ez ezik plataforma ere ikusgai egiten dituzte.

ZUTABEEI BURUZKO EDOZEIN ZALANTZA EDO INFORMAZIO BEHAR IZANEZ GERO, HELBIDE HONETARA IDATZI, MESEDEZ:

zutabeakgernika2017@gmail.com

ETA HAUXE "ONGI ETORRI GERNIKA 2017" WEB ORRIA:

<https://ongietorrierrefuxiatuak.info/gernika2017>